




Lagun Artean



TXOSTENA 2017

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu erakunde publiko eta pribatuei, bazkideei, boluntarioei eta bestelako kolaboratzaileei, 2017an emandako laguntzagatik. Zuen guztion laguntzarik gabe Lagun Artean ez litzateke posible izango. Eskerrik asko!



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



FUNDACIÓN

VÍCTOR TAPIA - DOLORES SAINZ



fundación

carmen gandarias



Obra Social "la Caixa"



FUNDACIÓN
Antonio Meschaca de la Heredia



kutxabank



Caritas
Diocesana de Bilbao
Bilboko Elizbarrutikoa



BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA
Centro el hombre
BILBAO ELKARRAGAIEN BANKUA



edp



leioako ostalaritza eskola
escuela de hostelería de leioa

Martina de Zyricalday

BILBAO

Desde 1830



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



AYUDA DE LA UNIÓN EUROPEA
PLAN DE AYUDA ALIMENTARIA A LAS PERSONAS
MÁS NECESITADAS DE LA UE
UNIÓN EUROPEA
MINISTERIO DE AGRICULTURA,
ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE
COMISIÓN EUROPEA DE AYUDA ALIMENTARIA



BNI
COLABORA
BIZKAIA



Live
Basque



ART
arimaktore



acompañar
Banco de productos

Aurkibidea

<i>Nor gara</i>	<i>4</i>
<i>Kudeaketa aurreratua</i>	<i>6</i>
<i>Zer egiten dugu</i>	<i>7</i>
<i>Eguneko arreta</i>	<i>8</i>
<i>Egoitza arloa</i>	<i>12</i>
<i>Prestakuntza arloa</i>	<i>16</i>
<i>Eraldaketa soziala</i>	<i>18</i>
<i>Arlo Ekonomikoa</i>	<i>22</i>



Egitakoa

Lagun Artean Harrera Zentroa Bilboko Elizbarrutiko Caritasera lotuta dagoen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta etxerik gabeko pertsonak edo gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak gizarteratzeko prozesuan laguntzen du.

Gure lana bi ildo nagusiren arabera garatzen dugu: Pertsonen harrera eta bide-laguntza eta salaketa eta sentsibilizazio soziala.

Gure jarduera Bilbo barruan garatzen da. Arreta espezializatu eta egoitza arloko zerbitzuak ditugu.

Gure esku-hartze ereduak pertsona du ardatz. Loturak sortu, topaketa eta harremanetarako eremuak bideratu eta parte-hartze soziala aktibatzeke mekanismoak sortzen dira.

Ikaspegia

Bidezko gizarte bat eraikitzea da gure nahia, etxerik gabeko pertsonarik egongo ez den gizarte bat. Bazterkeria existitzen den bitartean, honakoen alde egingo dugu lan:

- Bizkaian erreferente izatea, kalitatezko esku-hartze espezializatu eta berritzailean. Horretarako, errealitate berrien arabera egokitzen dugu gure lana, betiere pertsona babesgabeen alde.
- Berdintasuneko espazio bat izatea, aktiboki parte hartzea eta salaketa soziala egiteko, bazterkeria sortzen duten egiturazko arrazoiak desagerraraztea lortzeko.

Balioak

Anaitasuna: Gure kristau izaerak pertsona guztiak berdin tratatzera garamatza. Era berean, beren eskubideak eta duintasuna aitortzen ditugu, gure arreta gizarteko pertsona babesgabeenengan zentratuz.

Hurbiltasuna: Gure konpromisoa pertsonen alde egotea da, baldintzarik gabeko harreraren bidez, entzunez eta bide-laguntza emanez. Gure lan-ereduaren ezaugarri nagusiak hurbiltasuna, erreferentzialtasuna eta topaketarako eremuak dira.

Gardentasuna: Gure kudeaketa ekonomikoaren inguruko bermea, prozesu estrategikoak eta esku-hartzea.

Parte-hartzea: Gure elkartearen aberastasun nagusia berau osatzen duten pertsonak dira: Boluntarioak, profesionalak, gure programetan parte hartzen dutenak eta abar.


Kalitatea: Gure ustez, berrikuntza, gure lanaren eta kudeaketaren hausnarketa kritiko eta konstruktiboa da, emaitzak zein geure prozesuak hobetzen saiatuz.

Justizia Soziala: Gizarte-bazterkeria sortzen duten egiturazko arrazoiengan eragiteko konpromisoa hartzen dugu eta, horren arabera, sentsibilizazio eta salaketa prozesuak garatzen ditugu.

Iraunkortasuna: Baliabide materialen erabilera etiko eta arduratsua egiten saiatzen gara, kontsumo iraunkorraren irizpideak aplikatuz eta ingurumena errespetatuz.



Egitara



Taldea

Profesionalak	Boluntarioak	Pertsona kopurua Bazkideak	Praktikak	KAL
28	68	67	16	56
13 emakume 15 gizon	32 emakume 36 gizon	34 emakume 23 gizon	14 emakume 2 gizon	56 gizon

Kudeaketa aurreratua



KUDEAKETA AURRERATUARI
DIPLOMA
A LA GESTION AVANZADA

Kudeaketa aurreratuaren diploma

2017an Lagun Artean Harrera Zentroak Kudeaketa Aurreratuko Euskaliten diploma jaso du. Arlo horretako prestakuntza jasotzeaz gain, gure kudeaketa hobetzeko aukera ematen diguten irizpideekin lan egiten dugu.



Berdintasun Plana

Lagun Artean zentroa Emakunderen erakunde laguntzailea da gaur egun. 2017an gure I. Berdintasun Plana burutu dugu. Aukera berdintasunaren aldeko lanaren inguruko 200 ekintza baino gehiago jarri ditugu martxan.

II PLAN DE MEDIO AMBIENTE



Ingurumen plana

2017-2019 aldirako II. Ingurumen Planean murgilduta gaude erabat eta gure programa guztietan ingurumen arloko ekintza eraginkorrak sustatzeko asmoa daukagu.

Gainera, urtero Ekonomia Solidarioaren inguruko REAS Euskadiren Ikuskaritza Soziala egiten dugu, printzipio horiekin bat gatozelako.




Zer egiten dugu

Gure lanaren helburua gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen *gizarteratzea* bideratzea da. Pertsona bakoitzari gizarte-laguntza pertsonalizatua eskaintzen diogu, beren ezaugarri eta gaitasunei erantzuteko. Pertsonen beharrian eta gaitasunak identifikatzeko *diagnostiko* bat hartzen dugu abiapuntutzat. Hori oinarri hartuta, *Arreta Plan Indibidualizatu* bat garatzen dugu, pertsonarekin eta bere erreferentziazko profesionalekin batera. Plan hori gisa moduan erabiliko dugu prozesu osoan. Banakako esku-hartze sozioedukatiboa burutzeko metodologia *laguntza-harremanean* oinarritzen da, hau da, pertsonen gizarteratzeko prozesuetan laguntzen zaie, harreman-loturak sortuz eta haien erreferente izanez.

Burutzen ditugun *jarduerak* arlo hauetan oinarritzen dira: arriskuaren prebentzioa, gizarte eta lan arloko sustapena, berdintasuna eta lankidetzeta eta beste gizarte baliabide batzuekiko osagarritasuna. Gure lana proiektu hauen barruan kokatzen da:

- *Egureko arreta:* Zerbitzu Irekiak eta Erabilera anitzeko Gizarteratze-zentroa.
- *Egoitza arloa:* Gaueko Zentroa eta Egoitza Dispositiboak.
- *Prestakuntza arloa:* Tailer sozialak eta Prestakuntza Profesionala.

Ondoren, ibilbide aurkeztu da, hau da, sarbidea eta programa edo proiektuen arteko lotura.



Eguneko arreta

ZERBITZU IREKIAK

Oinarrizko beharren estaldura zerbitzua (gosaria, kafea-berotasuna, garbitegia eta higiena eta komuna) Bilboko etxerik gabeko pertsona guztientzat. Gainera, gizarte baliabide sozialei buruzko *informazioa eta orientazioa* ematen da, baita Gizarteratze-prozesuak hasteari buruzkoa ere.

Helburua

- Egunez babestuta egoteko espazio bat eskaintzea, oinarrizko beharrian guztiak asetzeko aukerarekin, kalean bizitzeak dakartzan ondorioak arintzeko.

Ordategia

Gosaria:

Astelehenetik igandera 8:00etatik 08:30era.

Kafea / Higiena / Garbitegia:

Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 15:30era.



3.991

Gosari

3.911

Datxa

979

Garbitegi-
zerbitzu

9.803

Kafe

Eguneko arreta

BALIO ANITZEKO GIZARTERATZE-ZENTROA

Balio anitzeko gizarteratze zentroaren

helburua *gizarteratze-prozesuak* abiatzea da adinez nagusiak diren etxerik gabeko pertsonekin, sexu-bereizketarik gabe. 20 leku ditu, eta horietatik 15 Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostuta daude. Ordutegia 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara bitartekoa da. Asteburuetan aisialdi jarduerak antolatzen dira.

Helburuak

- Baztertutako edo bazterkeria arrisku handia duten pertsonak gizarteratzen lan egitea, harrera, negoziazio, planifikazio eta laguntza prozesuaren bitartez.

Jarduerak

- Eskola-graduatuak, gaztelania-eskolak eta irakaskuntza ertainei laguntzeko klaseak.
- Ikasten ikastea (zeharkako gaitasunak).
- Kudeaketa emozionalean laguntzeko taldea.
- Geure itxura eta buruaren inguruan daukagun irudiaren inguruko tailerra.
- Irakurketa eta garapen kognitiboaren inguruko tailerra.
- Marrazketa eta pintura tailerra.
- Sukaldaritza tailerra.
- Erlaxazio tailerra.
- Informatika eta internet.
- Musika kulturako tailerra.
- Eztabaidak eta bideoforuma.
- Irteera kulturalak eta txangoak.



Egoitza arloa

GAUEKO ZENTROA

Gaueko Zentroa 32 leku dituen gaueko aterpea da, eskakizun ertainekoa, eta etxerik gabeko pertsonen premiazko *ostataa* eskaintzen die. Bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dira: *Higienea eta dutxa, kontsigna, gosaria, afaria eta garbitegia*. Egonaldia aldakorra izan daiteke, egoera psiko-sozialen arabera. Hala ere, egonaldiaren luzapena gizarteratze-prozesuarekin lotuta dago beti.

Helburuak

- Ostata ematea eremu egoki, seguru eta estalian, gaua igarotzeko eta norberaren gauzak gordetzeko.
- Oinarrizko beharrak asetzea: elikadura (gosaria eta afaria), higiena eta dutxa, arropa garbitu eta lehortzea.
- Laguntza soziala ematea gizarteratze-prozesuetan.




Egoitza arloa

EQOITZA DISPOSITIBOAK

Gure egoitza arloan tutoretzapeko *12 etxebizitza* ditugu, guztira *64 pertsonarentzako lekuarekin*. Horietako 5 Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartuta daude eta gainerakoak guk geuk kudeatzen ditugu. Heziketa arloko izaera duen etxebizitza bat daukagu, "intentsitate handikoa" deitzen duguna, gazteei zuzendua. Gainerakoak intentsitate erdikoak dira eta bazterkeria egoeran dauden pertsonak,

etorkinak eta adingabeen ardura duten emakumeen prozesuak babestera bideratuta daude. Bizitzeko eremu gisa sortu dira eta etxerik gabeko pertsonentzako daude pentsatuta, gizon zein emakumeak, 18 eta 60 arte artekoak eta adingabeen ardura dutenak.




BFAREKIN HITZARTUTAKO EQOITZA-DISPOSITIBOAK

ALDEBARAN KRONIKOTASUNA

Hezkuntza intentsitate ertaineko etxebizitza, egonaldi ertain-luzekoa, *kronikotasun* egoera handiengan dauden pertsonentzat. Baliabideak *Mendipe* izena dauka eta *4 pertsonarentzako lekua* dago.

PROGRAMA:



Egoitza arloa

ALDEBARAN PROGRAMA: TAU SAREA


Hezkuntza intentsitate ertaineko etxebizitzak dira *gizarte-bazterkeria egoera arin edo ertainean dauden pertsonentzat*. Gaur egun bi egoitza-dispositibo ditugu.

Guztira *14 pertsonarentzako lekua* dago. Luzarran 9 gizonentzako lekua eta *Betanian* 5 emakumerentzako lekua.



HELDUZ PROGRAMA

18 eta 23 urte bitarteko gazteentzako emantzipazio etxebizitza deitzen zaio, eta ondorioz, *heziketa intentsitate handiko* alojamendu zerbitzua da. Etxezuri izeneko etxebizitza bat daukagu, 7 gizonentzako lekuarekin. Uztailaren 31n ixten da programa.



Egoitza arloa

LIZA PROGRAMA

Heziketa intentsitate ertaineko etxebizitza bat dugu *gizarteratze fasean dauden eta toxikomania arazoak dituzten pertsonen tratamenduari laguntzeko*. 4 gizonentzako lekua duen dispositiboa da, *Mendigare* izenekoa.



FOCUS SAREA: BIDELAGUN / ZAINDU

Bazterkeria-egoera kroniko batean dauden pertsonentzako egoitza dispositiboak, *egonaldi luzeko* zerbitzu eta esku-hartze erritmo mantsoago batekin. 2 etxebizitza ditugu, guztira *10 lekurekin*:

- *Bidelagun*: 7 pertsona.
- *Zaindu*: 3 pertsona.



Dispositiboa 2017ko abenduaren 20an irekitzen da.

Egoitza arloa

GUZK GUKU KUDEATUTAKO EGOITZA DISPOSITIBOAK

IMMIGRAZIO PROGRAMA: AIZE ONAK BASERRI

Heziketa maila ertaineko etxebizitza bat da, *gizarte-bazterkeria egoeran edota arriskuan dauden etorkinei harrera emateko*. Baliabideak *11 pertsonarentzako* lekua da, eta soilik gizonei zuzenduta dago.



BITARTEKARITZA PROGRAMA

Zubi-etxebizitzak dira, DBE baino diru-sarrera baxuagoak dituzten eta gizarteratze-prozesua bideratzeko laguntza behar duten pertsonen bideratuak. Gizonentzako hiru etxebizitza genituen, guztira *12 pertsonentzako lekaarekin*:

- *Betirako*: 3 pertsona. 2017ko abenduan itxi da.
- *Ecioza*: 3 pertsona. 2017ko martxoan itxi da.
- *Miramar*: 2 pertsona.



Egoitza arloa

EMAKUME PROGRAMA

Heziketa maila ertaineko etxebizitzak dira, *bakarririk dauden edota adingabeen ardura duten emakumeentzako.*

Hiru etxebizitzako sare bat dugu, *19 lekurekin; 11 emakumeentzat eta 8 adingabeentzat:*

- *Agora:* 6 pertsona. 3 emakume eta beste 3 adingabe.
- *Mugabe:* 6 pertsona; 3 emakume eta 3 adingabe.
- *Ramón y Cajal:* 2 emakumerentzako lekua.
- *Eceiza:* 3 pertsona; emakume bat, eta bat edo adingabe. 2017ko apirilean ireki da.

%97,90eko
okupazioa

16
emakume

16 adingabe
8 matil
8 neska



Prestakuntza arloa

TAILER SOZIALAK

Tailer sozialek *heziketa arloko esku-hartze programa* osatzen dute, eta bertan norberaren baliabideak eta gaitasunak indartzeko prestakuntza eskaintzen da. Egunero *15 leku* ditugu. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara bitarteko ordutegia dauka.

Helburuak

- Etxerik gabeko pertsonentzako oinarrizko prestakuntza ematea, gizarteratzea bultzatzeko.
- Eguneko Zentroan esku-hartze prozesuak abiatzeko sarbide izatea.

Jarduerak

- Gaztelaniazko prestakuntza atzeritarrentzat.
- Tailer psiko-hezitzaileak.
- DBHn eta lanbideko heziketa zikloetan (erdi mailan edo goi mailan) gradudun izateko prestakuntzan laguntzea.

52 pertsona

42 gizon

10 emakume

72,84
eguneko
egonaldia
batez beste



Prestakuntza arloa

NEKAZARITZAKO LAQUNTZAILEAREN LANBIDE ZIURTAGIRIA

Lanbiderekin elkarlanean jarraitu dugu enplegura begirako prestakuntza emateko helburuarekin. Aize Onak baserrian *hiru ikastaro* eman ditugu, *nekazaritza laguntzaile* arloko profesionaltasun ziurtagiria lortzeko. *370 orduko ikastaroak* izan dira; horietatik 40 nekazaritza ustategietan burutu dira praktika gisa. Ikastaroak iraila eta abenduan hasi ziren.

Helburuak

- Beharrezko eginkizunak garatzea barazki jangarrien espezie eta aldaerak sortzeko prozesua osatzeko.
- Nekazaritza praktika osagarriak egitea uzta bikainak lortzeko, betiere kalitatea, ingurumenaren babesa eta errentagarritasun ekonomikoa kontuan hartuta.
- Aize Onak baserriko nekazaritza-eremuari errentagarritasuna atera eta erabiltzea.



44 pertsona

35 gizon

9 emakume

%81,8

helburuak
beteta



Eraldaketa soziala

SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK

"LA CALLE, EN BILBAO, CON ROSTRO DE MUJER" ERAKUSKETA ETA ETXERIK GABEKO PERTSONAK. GAZTE BEGIRADA

Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza sailarekin batera, bi sentsibilizazio programa jarri ditugu martxan:

- Argazki erakusketa: *"La calle, en Bilbao, con rostro de mujer"*. Etxerik gabe edo bazterkeria egoeran bizi diren emakumeen inguruko 20 argazkiz osatua. Emakunderen Berdintasun Foroan inauguratu da eta leku desberdinetan jarriko da ikusgai, zabalkunde emateko.
- *Pertsona Etxegabeak. Gazte begirada.* Etxerik gabeko pertsonen errealitateari buruzko prestakuntza eman zaie bigarren hezkuntzako eta batxilergoko 567 ikasleri. 1. Barrutiko 5 ikastetxetan eman da prestakuntza hori, gazteak sentsibilizatu eta etxebizitza-bazterkeriaren inguruko mitoak alde batera uzteko. Ikasleek gure baliabideetara gerturatzeko aukera ere izan dute, gure esperientziak bertatik bertara ezagutzeko.

exposición fotográfica
"La calle, en Bilbao, con rostro de mujer".



Argazki erakusketa.
"Kale gorria. Bilbon. Emakume bisaiaz".
Lagun Artean



MAGIA JAIALDIA

"NI TRAMPA NI CARTÓN, ILUSIÓN"

Martxoaren 9an magia ikuskizun bat izan genuen Bilbo

Rock aretoan: *Ni trampa ni cartón, Ilusión*."

Laguntzaileak:

- Arimaktore Show (aurkezleak).
- Magoak: Akelar, Ion Zabal eta Imanol Ituño .
- La Glozirko (Aire akrobaziak).
- Asier&Javier (umorista grafikoak).
- Basque Live (koordinazioa eta ekoizpena).



Eraldaketa soziala

DEUSTUN PARTE-HARTZEA ETA PRESENTZIA

YO TEJO X LAGUN ARTEAN

Ekainaren 14an, elkartearen Luzarra Eraikinean, Hiriko Gantxillo ekitaldi bat antolatu genuen, higiezinaren hesia apaintzeko. Auzoko hainbat elkarteren laguntza izan genuen: Adeco, Basque Live, Triko Arte, Lanas Gordobil, Aita Menni eguneko zentroa eta Caritas.



AUZOKO FESTETAN

Martxoaren 26an, igandea, Deustuko jaietan egon ginen, haurrentzako jardura eta tailerrak egiten. Eskumuturrekoak, arabiar letraz idatzitako liburu-markatzaileak eta abar egiteko eta tea hartzeko aukera eduki genuen, besteak beste.

POBREZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 19an, Pobreziaren Nazioarteko Eguna dela eta, gure elkartearen eta gure proiektuen aurkezpena egin genuen San Pedroko parrokian. Emakumeei eta bazterkeriari buruzko erakusketa bat egin genuen eta gure proiektuetan parte hartzen duten pertsonen jatorrizko herrialdeetako plater tipikoak dastatu genituen.



Eraldaketa soziala

*INGURUMEN EGUNA
Maiatzak 26*



*BESTE BI PLATAFORMA
Apirilak 27*



*EMAKUMEOK BIDEAN
Hilabeteko azken ostegara*



*ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK
Apirilak 28*



*ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIAAREN
AURKAKO MANIFESTAZIOA Martxoak 21*



*LA CAIXAKO BOLUNTARIOAK AIZE
ONAK BASERRIAN. Otsailaren 13tik 17ra*



Eraldaketa soziala

SAREAK ETA FOROAK



EAPN, Pobreziaren eta Gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako Sarea Euskadin.



GIZARDATZ, Gizarte Ekimen eta Esku-hartzeko Erakundeen Elkartea.



EZEZ! Indarkeria matxistaren aurkako elkarteen euskal sarea.



EKAIN, Gizarteratzearen aldeko Euskadiko Sareak.



FIARE, Banka Etikoa.



BESTE BI, Etxerik gabeko pertsonen egoitza-inklusioren aldeko plataforma.



ECOSISTEMA, Bizkaiko 7 gizarte erakundearen sareko lana, etxerik gabeko pertsonen etxebizitza-estaldura emateko.



PLATAFORMA NORTE, Etxerik gabeko pertsonen kolektiboarekin lan egiten duten Estatuko iparraldeko erakunde publiko eta pribatuen sarea.



EMAKUMEOK BIDEAN, Hirugarren sektoreko erakundearen sarea, emakumeekin esku hartzeko praktika onak eta estrategiak ezarri eta egoera bidegabeak salatzen dituen.




ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA, Bilboko Udalak diskriminazioaren aurka bultzatutako estrategia. Deustun parte hartu dugu.




Arlo ekonomikoa

DIRU-SARRERAK



GASTUAK



Arlo ekonomikoa

URTEKO KONTUAK

DIRU-SARRERAK	
Erakunde publikoak	1.008.188,63
Erakunde pribatuak	121.300,00
Erabiltzaileen ekarpenak	22.273,16
Dohaintzak	138.093,60
Bestelako diru-sarrerak	25.459,30
	<i>Guztira</i> 1.315.314,69
GASTUAK	
Langileria gastuak	755.146,88
Alokairuak	139.912,14
Azpiegiturak mantentzea	225.085,38
Administrazioa eta bulegoa	26.784,68
Zergak eta finantza gastuak	2.281,70
Aseguruak	9.604,11
Kanpo zerbitzuak	100.278,92
Amortizazioak	45.406,85
Bestelako gastuak	6.574,87
	<i>Guztira</i> 1.310.535,53
	<i>Emaitza</i> +4.779,16

FINANTZATZAILEAK

Erakunde publikoak	Erakunde pribatuak
Bilboko Udala – Gizarte Ekintza Saila	Gandarias Fundazioa
Bizkaiko Foru Aldundia Enplegu, Gizarteratze eta	La Caixa Fundazioa
Berdintasun saila	Menchaca de la Bodega Fundazioa
Eusko Jaurlaritza	Víctor Tapia - Dolores Sainz Fundazioa
• Enplegu eta Gizarte Gaiak	Bilboko Elizbarrutiko Caritas
• Lan Zerbitzu Publikoa - Lanbide	Kutxabank. Gizarte Ekintza
	EDP Fundazioa.

IKUSKARITZAK

- *Ikuskaritza ekonomikoa:* Auren Consultores Norte SL enpresa.
- *Sare Ekonomiko Alternatibo eta Solidarioaren Gizarte Ikuskaritza (REAS)*



NOLA LAGUNDU DEZAKEZU?

BOLUNTARIOTZA

Gure proiektuetan boluntario gisa parte hartzeko aukera duzu.

BAZKIDEA

Lagundu iezaguzu gizartea eraldatzen.

DOHAINTZA

BBK ES34 2095 0355 70 3830607841

LABORAL KUTXA ES87 3035 0057 90 0570043812

DOHAINTZA SOLIDARIOA

Gehitu gizarte erakunde bat zure testamentuan, onuradun gisa.

ERAKUNDEAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Gure gizarte lanarekin bat egiteko aukera ematen diegu enpresei.

EQUITZA SOZIALA

Julio Urkixo 5, lonja. 48014 Bilbo

Tel.: 94 447 24 87

Faxa. 94 476 50 50

lagun-artean@lagun-artean.org

www.lagun-artean.org